



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 5a

13. ZK.

### A U R K I B I D E A

E S A I L A:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Nafarroako Gobernua premiatzen da lege bat taxutu dezan, lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatuko dituen eta LGTBI-fobia errotik desagerraraziko dituen. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan publizitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak Adimen Osasunaren sarean erreferentzia zentro gisa daukan garrantzia. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du prostituziora bideratutako emakumeen eta hauren trafikorik gabeko hirien sarearekin. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Garoñako zentral nuklearrari ez diezaion ustiapen-baimen berririk eman, eta hura eraisteko prozesuari ekin diezaion. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko Mahai bat abian jar dezan. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sareko ezagutza publiko, eskuragarri eta unibertsalerako plan bat taxutu dezan. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (11. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu beharrezkoa dela Industria, Energia eta Turismo Ministerioa inplika dadin Landabengo ZF-TRWko lan-gatazkako egoeran. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen baitu eskola-curriculumean bakerako eta indarkeriarik ezaren aldeko hezkuntzari buruzko edukiak sartzea. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako estatuko Gobernuari eskatzen baitio ararteko jardun dezan Saudi Arabiara material militarra esportatzeko batere baimenik eman ez dadin. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, azken lau urteotako I+G+Bko hobariei buruzkoa. María Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa, Nafarroako jarduera lirikoa Nafarroako Fundazio Lirikoaren inguruan metatzeko aukera dela-eta. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Gobernuaren aurreikuspenei buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko langile eta funtzionarioen aparteko ordainsaria berreskuratzea eta 2016rako soldata-igoera direla-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa, uholdeek eragindako kalteak -txikiagotzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen egin gabeko faseen exekuzio-epeak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, itxarote-zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta COSPLANen (Familia Orientabiderako Zentroa) arteko harremanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritza-taldearen erabakiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako ikasleak fisikoki banandu baitituzte hizkuntza-ereduaren arabera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, adingabeei eginiko sexu erasoak areagotu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galderak, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoak. Foru Diputazioaren erantzunak (25. or.).
- Galdera, unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea (31. or.).
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (31. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikorako bere ordezkari gisa izendatzekoak diren bi kideak hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (32. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege bat taxutu dezan, lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatuko dituen eta LGTBI-fobia errotik desagerraraziko dituen.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege bat taxutu dezan, lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatuko dituen eta LGTBI-fobia errotik desagerraraziko dituen.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege bat taxutu dezan, lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen eskubideak bermatuko dituen eta LGTBI-fobia errotik desagerraraziko duena.

Berdintasuna pentsaezina da gizakiaren aniztasun osoa onartzen ez bada. Bere adiera zabalean, hori lotuta dago pertsona bakoitzak benetako aukera izatearekin beste pertsona batek dituen ahalbide berak edukitzeko bere bizitza-proiektua

garatzeko, inolako mugarik izan gabe bere inguruabar pertsonalengatik, berdin delarik horiek ekonomikoak, sozialak, kulturalak edo erlijiozkoak diren. Eta zer esanik ez, gauza bera sexu- eta/edo genero-joeraren edo nortasunaren aldetik, alor hori norberaren errealizaziorako eskubidea osoki erabiltzeari dagokiolako, norbanakoaren askatasun erabatekoenaren barnean.

Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, Nazio Batuek giza eskubideetarako dituzten mekanismoek hainbatetan adierazi dute kezkatuta daudela LGTBI pertsonen giza eskubideak maiz eta muturreko eran urratzen direlako.

2010ean, New Yorken lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen berdintasunari buruz eman zuen hitzaldi batean, Nazio Batuetako Ban-Ki-moon idazkari nagusiak eskaera egin zuen neurriak hartzeko LGTBI pertsonak jasaten zuten indarkeria eta diskriminazioaren aurka: "Gizon eta emakume kontzientziadunak garen heinean, diskriminazioa arbuiatzen dugu, oro har, eta bereziki sexu-joeran eta genero-nortasunean oinarritutako diskriminazioa (...) inon tentsiorik agertzen bada jarrera kulturalen eta giza eskubide unibertsalen artean, eskubideak gailendu behar dira."

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du sexu-osasuna: "ongizate fisikoa, emozionala, mentala eta soziala, sexualitatearekin lotua." Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, sexu-osasunak eskatzen du era positibo eta errespetuzkoan hurbiltzea sexualitatera eta sexu-harremanetara, eta aukera izatea sexu-esperientzia seguruak edukitzeko, hertsadura, diskriminazio eta indarkeriarik gabe. Beraz, tarte handia dugu oraindik sexu-osasun integral eta inklusiboa lortzeko.

Gaur egun, gure herrian sexu-joeragatiko edo genero-nortasunagatiko diskriminazioa bateraezina da legearekin, LGTBI elkarte mugimenduari eta botere publikoen ardurari eta sentiberatasunari esker.

Azken urteotan, aurrerapen nabarmenak izan dira sexu, genero eta familia bestelakotasunaren aitortzeari, eta hura legezko neurrietan gauzatzeari dagokionez.

Espanian, 2007an, Genero Nortasunari buruzko Legea onetsi zen. Eta 2015ean mugarrizko sozial baten hamargarren urteurrena izan zen, gure herria eskubide sozialen aitzindari bihurtu zuena: Kode Zibilaren eraldaketak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzarako eskubidea aitortu zuen. Ekimen horrek adopzioarako atea ireki zien familia homoparentalei, eta horrela, bete egin zen kolektibo horren beste erreibindikazio bat, bikotearen bizitza aukera-berdintasunean garatu ahal izateko. Une hartan, Espainia munduko laugarren herria izan zen, sexu bereko pertsonentzat berdintasunezko ezkontza legeetan ezarri zuten artean. Hamar urte igarota, joan den ekainean, gisa bereko neurri bat onetsi da Estatu Batuetako Auzitegi Gorenaren epai baten ondorioz, zeinak legez kanpokotzat deklaratu baitzituen hamalau estatutan sexu bereko pertsonen arteko ezkontza debekatzen zuten legeak.

Rodríguez Zapateroren gobernu sozialistaren garaian 1631/2006 Errege Dekretua onetsi zen. Horren bidez Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaia abiarazi zen lehen eta bigarren hezkuntzan. Aipatu irakasgaia Europako Kontseiluak gomendatu zuen (2002), esanez funtsezkoa zela gizarte libre, tolerantia eta justu bat sustatzeko, eta laguntza ematen zuela giza eskubideen defentsarako; aurrerapauso handia izan zen aniztasunean eta askatasunetan hezteko, testuan esplizituki jasotzen zuelako "pertsona libre eta osoen garapena laguntzeko helburua", aukera handia izanik etorkizuneko belaunaldiak laguntza eman dezaten gizarte tolerantia eta errespetuzkoago bat sortzeko.

Nafarroan, Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 12/2009 Foru Legearen xedea da arau-esparru egoki bat ezartzea pertsonen genero-autodeterminazioa bermatzeko, pertsona horiek adierazten duten genero-nortasuna jaiotzean esleitutakoaz besteko bat denean. Lege hori ez da oraindik erabat garatu, eta horren ondorioz pertsona transexualei ez zaizkie bermatzen gainerrako herritarren bizitza-baldintza berak.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar bestelakotasun sexualarekiko errespetuan gizarteak eta araudiak egindako aurrerapausoak gorabehera, oraindik ohikoak direla LGTBI-fobia kasuak (homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia), eta aitortu behar dugu gizarteak gaitzetzeko dituela oraindik aurreiritziak eta estereotipoak, iraganean iltzatuak, eskubide sozialetan aurrera egiten segitzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du:

1. Familia, sexu eta genero bestelakotasunarekiko errespetua susta dezan, tolerantzia eta bazterkeria eza bermatze aldera, edozein pertsona eta/edo familiak bere bizitza berdintasunean, askatasunean eta naturaltasunean garatzeko aukera izan dezan.

2. Behar den araudiaren garapena susta dezan, autonomia erkidegoaren eskumenen esparruan, lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatzeko eta LGTBI-fobia desagerrarazteko. Zehapen araubide egokia eta hura aldizka ebaluatzea ahalbidetuko duen arau-esparru bat, ebaluatu ahal izateko gizarte ezinbestean gertatu behar den eraldaketa, Nafarroan bestelakotasun afektibo-sexuala askatasun osoz biziko dela bermatzeko.

3. LGTBI elkarten Nafarroako Kontseiluaren sorrera susta dezan.

4. Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 12/2009 Foru Legearen garapena jarrai dezan.

5. LGTBI ikusgaitasuna susta dezan, elkarrekin batera egiteko ekintzen bidez; bereziki maiatzaren 17an, "LGTBI diskriminazioaren aurkako Nazioarteko Eguna" baita, eta ekainaren 28an, "LGTBI harrotasunaren eguna" baita.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 22an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin, bai eta beharrezkoak diren baliabideak libera ditzan eskola horiek osatzen dituzten eskola-unitateen sarea mantentzeko eta ezartzeko.

“Landa-eremuko eskola hezkuntza-erakunde bat da, landa-eremuko ingurunea eta kultura dituen euskarri gisa. Antolamendu-egitura heterogeneo eta berezia du, eta, halaber, konfigurazio pedagogiko eta didaktiko dimentsioaniztuna” (Roser Boix Tomás).

Erakunde horren aldeko apustua izan daiteke ikastetxe txikiak elkartzea udalerrri mugakide bartzuentzat, landa-eremuko eskolen desagerpena ekiditeko aukera gisaedo izaera integraleko neurri sozial gisa, edo izan daiteke sistema bat ezartzea,

giza baliabideak eta baliabide materialak, programak eta zerbitzu osagarriak emateko (esate baterako, eskola-jantokiak), eta berehalako eragina dute landa-eremuaren finkapenean, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleei herrian gertzea ahalbidetzen dietelako.

LOGSE aldarrikatu ondoren, kasu batzuetan izan ezik, institutueta eraman zen bigarren hezkuntza, eta jadanik orduan ikasle asko galdu zituen herrietan. Orain, herri txikiak jendez hustea ez da landa-eremuko eskolaren etsai handi bakarra. Horri gehitu zaizkio krisialdia eta haren ondoriozko aurrekontu-murrizketak. Horrek guztiak kezka sortzen die herrietako irakasle eta gurasoei eskola txikien eredu bati dagokionez, zeinetan hirutik hamabi urtera bitarteko ikasleek gela eta irakaslea partekatzen baitituzte.

Gaur egun, hezkuntza-legeak aldatzen ari direnean, eta krisialdi sozioekonomikoaren testuinguruan, arriskua dago hezkuntza-arauen garapena landa-eremuko hezkuntzaren kaltean egiteko. Nafarroako herri askotan hezkuntza-komunitateek beldur diote landa-eremuko eskolak jasan dezakeen kalteari.

Joan den legegintzaldian Nafarroako Parlamentuak hezkuntza-eredu honen aldeko erabaki bat onetsi zuen (55. NPAO, 2012-06-01ekoa). Bertan premiatzen zen ikasleen gutxieneko kopuru bat ezartzera, halako moduan non hori gaintuz gero eskola bat ireki beharko baitzen, “herriak bizirik mantentze aldera”. “Diskriminazio positiboko politikak” eskatzen ziren, “laguntza bereziak” bilduko zituztenak. Landa-eremuko irakasleei begira, Nafarroako Gobernuari “pizgarriak” eskatzen zitzaizkion, lanpostuak “erakargarriagoak eta egonkorragoak” izan zitezten, bai eta “prestakuntza berezia” ere, hala unibertsitatean nola zona bakoitzeko ILZn. Landa-eremuko eskolen bulego bat eskatzen zen.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura hetero-

geneo eta bereziarekin, bai eta beharrezkoak diren baliabideak libera ditzan eskola horiek osatzen dituzten eskola-unitateen sarea mantentzeko eta ezartzeko, eta, halaber, joan den legegintzaldian hartutako erabakia, zioen azalpenean aipatzen dena, bete dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du landa-eremuko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako gelei euts diezaion, haien iraupena gutxieneko ikasle-kopuru baten bidez mugatu gabe, era horretan bermatuz

biztanle gutxiko udalerrietan iraun dezaten, erreferente soziala izan daitezten eta landa-eremuko biztanle-kopuruari eusteko aukera eman dezaten. Landa-eremuko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoei behar adinako giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta teknikoak emanaz, irakaskuntzaren kalitate maila egokiak eskaini ahal izan ditzaten.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan publizitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan publizitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Komunikazioko Zuzendaritza Nagusiaren txostenetatik, Nafarroako Gobernuak publizitate instituzionalerako inbertsioko kontusailari buruzko azken aipua jasotzen duena 2014ko oroit-idazkia da. Bertan sartzen da, halaber, 'Nafarroako turis-

mo-markaren sustapena' xedetzat duen kontusaila.

Oroit-idazki horretako datuen arabera, eta 2015ekoa oraindik ez eskueran ez dagoela, idatzizko prentsan (paperezkoa bakarrik) publizitate instituzionala 285.099,85 €koa izan zen 2014. urtean, eta digitala baino ez den prentsan, berriz, 137.894,54 €koa. Guztira, 422.994,39 €. Hori kontusail osoaren % 59 da, kontusaila 717.164,54 eurokoa baita.

Nafarroako Foru Komunitateko bi komunikabide dira prentsako publizitate mota horren esleipendun bakarrak, bai paperezkoan bai digitalean ere, eta ez dugu atzematen banaketa inolako datu objektiboren arabera denik. Egoera hori ez da gertatzen Nafarroako Gobernuak sustapenerako duen beste kontusail handian, 'Nafarroako turismo-markaren sustapena' izenekoan, kasu horretan banaketa, antza denez, zatikatuagoa delako.

Azken urteotan, komunikazioan eta eskura dauden baliabide teknologikoetan izan den bilakaera naturalarekin bat, Nafarroako prentsaren mundura beste komunikabide batzuk, batez ere digitalak, iritsi dira. Era berean, beste neurketatresna ireki batzuk agertu dira, eta haien bidez erabateko zehaztasunez aurkezten ahal da, papearean zein euskarri digitalean, komunikabide bat edo bestea kontsultatzen duten nafarren kopuru zehatza; are denboraren, iraupenaren, tokiaren edo errepikapenen arabera sailkatuta ere.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan, parametro kuantifikagarri, neurgarri eta irekien arabera, 'prentsa' eta 'internet' euskarrietako publizitate instituzionalerako kontusaila edo kontusailak.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak Adimen Osasunaren sarean erreferentzia zentro gisa daukan garrantzia.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen baitu Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak Adimen Osasunaren sarean erreferentzia zentro gisa daukan garrantzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kide Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoa erreferentzia zentroa da Nafarroako Adimen Osasunaren sarean, Alzheimer gaixotasunaren arloan bereziki. Bere helburu nagusia da buru-nahaste organikoak dituzten adindu gaixoei diagnostikoa, tratamendua eta errehabilitazioa egitea. Ezgaitasuna edo ezintasun iraunkorra eragiten

dituzten demenziak tratatzen ditu batez ere. Klinika Felipe Lecea Fundazioak zuzentzen du. Gizarte-ongizateko entitatea da, irabazi asmorik gabea. 1993an eratu zen, eta interes orokorreko helburua du.

Hiru lan ildo jorratzen ditu Klinikak. Batetik, osasun eta errehabilitazio zerbitzuak ematen dira zentroan, gaixoaren osasun fisiko, psikiko eta funtzionala hobetzeko edo hari eusteko. Era berean, klinikaren helburua da gaixoari laguntzea, gizarte harremanetatik eta familia ingurutik atera gabe betiere.

Bigarrenik, irakaskuntzan ere aritzen da. Izan ere, arretra psikogeriatrikoan espezializatutako irakaskuntza programak ematen ditu Klinikak; Estatu osoko psikiatria eta geriatría alorretako MIR medikuak, erizainak, laguntzaileak eta gizarte langileak etortzen dira, tratatzen dituzten psikogeriatria alorretan prestakuntza jasotzeko.

Azkenik, ikerketan ere aritzen dira, psikogeriatria alorreko gaixoei behar dituzten laguntza programei buruzko ikerketa programak garatuz eta lagunduz. Honen harira, esan behar da Nafarroako zentroetan hauxe dela burmuinen bankura burmuinen lagin gehien bidaltzen dituen zentroa.

Bestalde, Klinikak lau unitate ditu. Horietako bat, Ospitaleratze Unitatea da. Bere helburua da modu ambulatorioan tratatzerik ez duten buru-nahaste organikoek jotako gaixo adinduen diagnostikoa, tratamendua eta errehabilitazioa. Ospitalean egoten dira harik eta gaixotasunak gaixoa gizarteratzeko aukera eman arte edo, bestela, beren beharren arabera laguntza zerbitzu bate-

an kokatu arte. Adimen Osasunaren Sare publikoak bideratzen dizkio gaixo horiek.

Eguneko Zentroa ere badago. 25 leku ditu zerbitzuak, eta dementzia edo beste nahasmendu psikogeriatrikoak dituzten gaixoei eguneko laguntza ematen die. Jakintza alor anitzetatik heltzen diote gaiari, eta, horri esker, aurrerapen ugari lorzen dira: prozesuaren errehabilitazioa, autonomia pertsonala eta soziala, eta adindua komunitatean ahalik eta denbora gehien egotea, bizi kalitate handiena izanda.

Era berean, ondoko baliabideak erabiltzen dituzte: lanaren bidezko terapia programak (estimulazio kognitiboa, besteak beste), musikoterapia, oinarritzko jardueretan eta ekintza instrumentaletan trebatzea, oroipena, ludoterapia eta errehabilitazio fisiko eta funtzionala.

Kanpo kontsultak ere egiten dira. Helburua da dementzia sintomak eta beste nahasmendu psikogeriatrikoak dituzten gaixoen diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena egitea.

Klinika honetan tratatzen dituzten dementzia sintomen diagnostiko goiztiarra eta prebentzioa egiten ditugu. Bistan denez, alderdi horrek eskatzen du lehen mailako arretako medikuekin lankidetzaz zorroztzean aritzea, organigraman duten egoerarengatik horiek berek goiz detektatuko baituzte kasuak.

Eta, azkenik, familiendako aholkularitza ematen da. Horretaz gain, AFAN elkartearekin (Asociación de Familiares de Enfermos de Alzheimer de Navarra) laguntza taldeak eta boluntarioak koordinatzen dituzte.

Zalantzarik gabe, Adimen Osasunaren arloan ezinbesteko baliabidea dugu Klinika, ematen duen zerbitzu publikoaren garrantzia aintzat hartuta, eta hainbat familiarentzat beste soluziorik ez dagoen neurrian.

Egun kontzertu bidezko finantziazioa dauka, eta ospitaleratze unitatean 170 euroko kontzertua dute ohe bakoitzeko. Horrek larri betetzen ditu gastuak, eta nekez bermatzen du bere bideragarritasuna. Hain zuzen, finantziario murriztaren ondorioak langileek pairatzen dituzte, beren lan baldintzak gero eta eskasagoak baitira, 2011ko murrizketatik aurrera bereziki. Horrekin batera, lan batzuk aurrera ateratzeko bolondresen lana behar izaten dute.

Akordio programatikoa osasungintza publikoaren aldeko apustu garbia egiten da, eta honako

konpromisoak hartzen dira atal horretako 14., 15. eta 16. puntuetan:

14. Analisi tekniko, juridiko eta ekonomiko bat egin ondoren, egun pribatizatuta dauden zerbitzuak berriro ere kudeaketa publikoaren esku uztearen alde egitea, argi egin ere, eta, horretarako, lehenetsunaren egutegi bat finkatzea.

15. Entitate pribatuekiko itun eta hitzarmen guztiak aztertzea, subsidiarotasun printzipioan eta baliabide publikoak optimizatzeko printzipioan oinarrituz, sistema publikoa sendotzeko eta sistema pribatura bideratzen diren kasuak eta itunak mugatzeko eta arrazionalizatzeko.

16. Buruko osasuneko sareak ematen duen arreta-maila optimizatzea eta haren baliabideak lehen mailako arreta-sarearekin koordinatzea –bereziki, buruko arazo arrunt edo ez oso larrien jarraipena egiteko– eta buruko osasun arazo larriak dituztenei laguntza jarraitua ematea, maila guztietan.

Akordioaren izpirituari jarraiki, uste dugu bide-  
ren bat urra daitekeela une honetan kontzertatua dagoen klinika hau arlo publikora igaro dadin. Gu-  
txienez, aukera hori seriotasunez aztertzea pro-  
posatzen dugu, erreferentzia zentroa eta osasungintza arloan ezinbesteko baliabidea den neurrian.

Horrengatik guztiarengatik aurkeztu dugu honako

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak Adimen Osasunaren sarean erreferentzia zentro gisa daukan garrantzia, eta bertan ematen den zerbitzua balioesten du, zerbitzu publiko ezinbestekotzat jotzen duelarik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premeratzen du Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoa zentro kontzertatua izateko publiko izatera pasatzeko aukera azter dezan; Osasunbideko sare publikoan sartzeko aukera, alegia. Azterketa horretan irizpide juridiko, ekonomiko eta osasungintzaren planteamendu estrategikoari dagozkionak aintzat hartu beharko litzuke bai eta eman beharreko urratsak ere. Aipatu azterketa Parlamentuan aurkeztuko du Gobernuak hiru hilabeteren buruan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin.**

### *IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamendurekin bat, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Prostituzioan dauden emakume eta gizonezkoen patua aldatzeko, beharrezkoa da sistema ekonomiko justu eta jasangarri bat planteatzea, bi sexuak berdintasunean kontuan hartuko dituen. Horien patua aldatzeko mafien aurka ekin behar da, gure herrian ezartzen laguntzen dieten lege permisiborik onartu gabe. Horien patua aldatzeko beharrezkoa da emakumeen eskubideak, bigarren

mailako eskubideak izan ordez, benetan izan daitezten giza eskubideen parte.

Diotenez, prostituzioa betidanik izan da. Gerrak, tortura, haurren esklabutza, milaka pertsona gosez hiltzea, horie ere betidanik izan dira, baina horrek ez du frogatzen zilegitasunik edo baliorik dutenik. Prostituziorik gabeko mundu bat irudikatu behar dugu, era berean lortu baitugu irudikatzen esklabutza, apartheid, genero-indarkeria, infantizidio eta emakumeen genitalen ebaketarik gabeko mundu bat. Hori da bide bakarra, koherentziari eusteko gizartean eta hezkuntzan berdintasunari buruz erabili ohi ditugun diskurtsoen eta benetan egiten eta sustatzen ditugun jokabideen artean.

Horregatik, inplikazio aktiboa eduki behar dugu, inoiz baino handiagoa, eta konpromiso horri hasiera emateko bat egin behar dugu prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du legea benetan aplikatu dadin, emakumeen eta haurren trafikoa eta horretan ari diren proxenetak eta mafiak jazartzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du mozio hau Gobernu zentralari eta Diputatuen Kongresuko eta Senatuko parlamentu-taldeei igortzea.

Iruñean 2016ko urtarrilaren 28an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Garoñako zentral nuklearrari ez diezaion ustiapen-baimen berririk eman, eta hura eraisteko prozesuari ekin diezaion.**

### *IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita Garoñako zentral nuklearrari ez diezaion ustiapen-baimen berririk eman, eta hura eraisteko prozesuari ekin diezaion.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Garoñako zentral nuklearra 1971n inauguratu zen. Une honetan, Espainiako parke nuklearreko zentralik zaharrena da. Jada 40 urte bete dituen zentrala da, eta eraisteko unea iritsi zaio. Energiaren ikuspuntutik ez dago zentral horren premiarik; izan ere, bi urte baino gehiago darama itxita, eta hala eta guztiz ere, Alderdi Popularraren gobernuak eta zentralaren jabetza duen enpresa (Nuclenor) lanean ari dira zentrala berriro ere abian jartzeko, epe motzeko interes ekonomikoa lehenetsiz, hartara, herritarren segurtasunaren eta ingurumenaren aldean.

Zentral nuklear horrek egitura- eta korrosio-arazo larriak izan ditu erreaktorean, azken urteotan zortzi istripu baino gehiago eragin dituztenak, eta Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak berak aitortu du larriki hondaturiko hainbat elementu

daudela. Era berean, zentralaren funtzionamenduak kutsadura termikoko arazo larriak eragiten jarraitzen du Ebro ibaian. Agerikoak dira energia nuklearrak, orokorrean, eta Garoñako zentralak, bereziki, herritarrentzat dakartzaten arrisku larriak.

Zentral nuklear horren jabetza duen enpresak (Nuclenor), abenduan hiru urte bete zituen energiari ekoitzi gabe, bilatzen du Industria Ministerioak 17 urte gehiagoz funtzionatzeko emakida eman diezaion.

Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak iragan urriaren 30ean onetsi zituen Garoñako zentral nuklearrak funtzionatu ahal izateko funtzionamendu-zehaztapen tekniko berriak. Zehaztapenetan jasotzen da, komunikatu batean adierazten denaren arabera, 20 urtez luzatzea zentral nuklear horrek funtzionatzeko muga-eguna.

Alderdi Popularraren jarduneko gobernuak datozen 17 urteetako politika energetikoa baldintzatu nahi du, lanean ari baita zentral atomiko zaharkitu, kutsatzaile, erregai garesti eta urrikoa eta, batez ere, batere segurua ez dena, irekitzeko.

Garoñako zentral nuklearrak itxita egon behar zuen duela hamar urte, lehen belaunaldiko zentral zahar bat baita, egiazko arriskuak eragiten dituen inguruan eta ingurumenean. Estatuko zentral nuklearrak zaharrena da, eta Fukushimako lehenbiziko erreaktorearen berdin-berdina da.

Erabaki proposamena:

– Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du Garoñako zentral nuklearrari ez diezaion ustiapen-baimen berririk eman, eta hura eraisteko prozesuari ekin diezaion berehala.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Gobernuak premiatzen ditu eredu energetiko berri baten aldeko apustua egin dezan, energia produktibo, jasangarri, garbi eta seguruak lehenetsiko dituenak.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko Mahai bat abian jar dezan.**

### *GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko Mahai bat abian jar dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko mahai bat abian jar dezan, ukitutako eragile guztiak batuko dituen, berrikuntzari eta ekonomia-estrategia berrien garapenari trabak jartzea ekidinez eta, aldi berean, monopolio berriak sortzea edo ekintzaile txikiak ekonomia ezkutuaren esparruan jardutera bultzatzea ekidinez”.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sarezko ezagutza publiko, eskuragarri eta unibertsalerako plan bat taxutu dezan.**

### *LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak, 2016ko otsailaren 2an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sarezko ezagutza publiko, eskuragarri eta unibertsalerako plan bat taxutu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ‘Sarezko ezagutza publiko,

eskuragarri eta unibertsalerako Plan’ bat taxutu dezan, formatu berrerabilgarrietan taxutu ere, Nafarroako Gobernuak egun sortzen dituen eta iraganetik baliagarri dauden ezagutza-erakunde buruzkoa, eta horretarako eskueran ipin ditzan herritarrei, ikertzaileei, enpresei nahiz ekintzaileei ezagutza ekar liezaieketen azterlan, liburu, ikerketa, irudi, bideo, testu eta beste edozein motatako eduki guztiak. Plan horren jarduketa-eremuak Foru Administrazio osoa eta sektore publikoko erakunde guztiak hartuko ditu.

Iruñean, 2016ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu beharrezkoa dela Industria, Energia eta Turismo Ministerioa inplika dadin Landabengo ZF-TRWko lan-gatazkako egoeran.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Industria, Energia eta Turismo Ministerioa inplika dadin Landabengo ZF-TRWko lan-gatazkako egoeran eta eragile aktibo bat izan dadin enplegua eta jarduera ekonomikoa mantentzeko akordioen bilaketan.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du adierazpen hau helaraztea Industria, Energia eta Turismo ministro José Manuel Soria López jaunari, adierazpen hau aintzat hartu eta lan-gatazka honen konponbidean inplikaturiko delakoan”.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen baitu eskola-curriculumean bakerako eta indarkeriarik ezaren aldeko hezkuntzari buruzko edukiak sartzea.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen du eskola-curriculumean bakerako eta indarkeriarik ezaren aldeko hezkuntzari buruzko edukiak sartzea eta eduki horiek ikastetxeen hezkuntza-proiektuen zeharkako osagai izatea.

2. Nafarroako Parlamentuak bakerako eta prestakuntza militarrik gabeko hezkuntzaren erakunde defendatzaile deklaratzan du bere burua

3. Nafarroako Parlamentuak ikastetxeei dei egiten die beren buruak Bakearen aldeko eta

prestakuntza militarrik gabeko Hezkuntzarekin konprometitutako ikastetxe deklaratu ditzaten, eta dei egiten die egun hau bakearen eta indarkeriarik ezaren aldeko jarduketak eginez ospatzera .

4. Nafarroako Parlamentuak, Indarkeriarik ezaren eta Bakearen aldeko Eskola-egunean, jarrera hartzen du gerra onartu eta hari men egitearen eta ikastetxeetako armetan oinarritutako segurtasunaren kultura bat eragiten duten curriculum-dukien tratamendu eta prestakuntza mota oren aurka”.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako estatuko Gobernuari eskatzen baitio ararteko jardun dezan Saudi Arabiara material militarra esportatzeko batere baimenik eman ez dadin.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako estatuko Gobernuari eskatzen dio ararteko jardun dezan Saudi Arabiara material eta teknologia militarra esportatzeko batere baimenik eman ez dadin, material eta teknologia horiek erabil daitezkeenean populazio zibilari zuzeneko eraso militarrrak egiteko eta Yemenen eraso indiskriminatuak egiteko edo Yemeneko portuen itsas-blokeoa mantentzeko .

2. Nafarroako Parlamentuak, halaber, alderdi politikoak premiatzen ditu beste alderdi batzuekin gobernu-hitzarmenak egiteko negoziazioetan lehentasun gisa jaso dezaten arma-salerosketaren kontrola eta gardentasuna hobetzeko neurriak hartzea, horrela ekidite aldera armak eskualdatzea nazioarteko zuzenbidearen urratze larriak egiteko xedearekin.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, azken lau urteotako I+G+Bko hobariei buruzkoa.**

*MARÍA FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako galdera, azken lau urteotako I+G+Bko hobariei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

1- Zenbatekoa izan da azken lau urteotako I+G+Bko hobaria? Zer kontzepturi dagokio hobari hori?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: María Fátima Andreo Vázquez

## **Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itzarote-zerrendari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itzarote-zerrendari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

- Zein zen, 2015eko uztailaren 20an, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itzarote-zerrenda?

- Zein da, 2016ko otsailaren 1ean, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itzarote-zerrenda?

Corellan, 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa, Nafarroako jarduera lirikoa Nafarroako Fundazio Lirikoaren inguruan metatzeko aukera dela-eta.**

**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa, Nafarroako jarduera lirikoa Nafarroako Fundazio Lirikoaren inguruan metatzeko aukera dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen Nafarroako jarduera lirikoa Nafarroako Fundazio Lirikoaren inguruan metatzeko aukera dela-eta.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Gobernuaren aurreikuspenei buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko langile eta funtzionarioen aparteko ordainsaria berreskuratzea eta 2016rako soldata-igoera direla-eta.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gobernuaren aurreikuspenei buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko langile eta funtzionarioen aparteko ordainsaria berreskuratzea eta 2016rako soldata-igoera direla-eta. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 11ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Carlos García Adanero foru parlamentariak idatzizko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari langileek eta funtzionarioek 2016rako aparteko soldata berreskuratzeari eta haiei soldata igotzeari buruz (9-15/PES-00043). Hauxe erantzun dio Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak aurreikusi du ordaindu gabeko 2012ko abenduko aparteko soldatari dagokion zenbatekoa berreskuratzea Gobernuaren hurrengo bilera batean erabakitzen den prozeduraren arabera, estatu araudiak horri buruz onesten dituen aurreikuspenak aztertu eta gero.

Soldata igotzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ordainsarien %1eko gehikuntza onartzeko asmoa dauka.

Horretarako, Nafarroako 2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua prestatzen ari da, bai ekitaldi horretan ordaindu gabe geratu zen aparteko soldatari dagokion zenbatekoa bai aurrekontu aurreikuspenek proiektu horretan gehitzen duten ordainsarien gehikuntzari dagokiona kontuan hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 14. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jarduketari buruzkoa, uholdeek eragindako kalteak txikiagotzeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, uholdeek eragindako kalteak txikiagotzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jarduketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 11ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higuera foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin du ibaien uholdeek eragindako kalteak minimizatzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen jarduketari buruz (9-15-/PES-00044). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari kontseilariak:

1.- Gobernuak zer irizpide dauka uholde horiek eragindako kalteak minimizatzeari buruz?

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari



buruzko 2007/60/EE Zuzentarauko hitzaurreak adierazten duenez, "uholdeak saihestu ezin diren fenomeno naturalak dira. Gainera, zenbait giza jarduerak (hala giza kokaguneak eta ondasun ekonomikoak alubioi-lautadetan gehitzea nola lurzoruak urak atxikitzeak daukan gaitasun naturala murriztea) eta klima aldaketak uholdeak egoteko aukerak gehitzen dituzte, arriskuaren eraginpean egonda eta haien ukipen negatiboa indartuta". Beraz, fenomeno konplexua da, aldi berean hainbat faktore naturalen eta antropikoren eragina jasotzen duena. Nafarroako Gobernuaren irizpidea honako hau da: kalteak minimizatzea ahalbidetzen duten prebentziozko irtenbideak, dena delako uholde-eremuaren problematikaren azterketa zehatzaren arabera kasu zehatz bakoitzerako egokiak direnak, sustatzea. Horretarako, zehatz-mehatz jakin behar da zein den ibaiak tarte horretan daukan funtzionamendua (tokiko analisitik gorako eskala). Izan ere, horrela arazoaren jatorriari buruzko diagnostikoa egin, eta balizko aukerak aztertuko dira, ingurumen- eta gizarte-faktoreak kontuan hartuta kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlazio onena agertzen duena hautatzeko asmoz.

Alde horretatik, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz Konfederazioek uholdeei buruzko Zuzentaria aplikatzeko egin dituzten lanek laneo oinarritzat jotzen dituzte uholde-arriskua kudeatzeko planak, bai Lurraldearen Antolamenduari dagokionez bai Ingurumenetik ibaien ekosistema tratatzeari dagokionez.

## 2.- Zer jarduketa-mota egiteko asmoa dauka?

Ekaineko foru aginduak eta kaltetutako azpiegiturak konpontzeko zein buxadurak eta oztopoak kentzeko jarduketak epe laburrerako jarduketatzat jo daitezke. Fase hori amaitu ondoren, egokia da epe ertainerako eta luzerako jarduketak planifikatzen hastea, Nafarroako Gobernuaren eskumenean barnean eta beste administrazio eskudun batzuekin batera lan eginda. Alde horretatik, Nafarroako informazio hidrologikoko sistema hobetzeko prestaketa- eta prebentzio-neurriak sustatzea aurreikusita da, Ebroko Konfederazio Hidrografikoan dagoen erabakietarako laguntza sistemarako osagarria dena gehituta. Halaber, babes neurrien artean, jarduketak aztertu eta ezarriko dira Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eta Errioxak, Nafarroak eta Aragoik osatzen duten Ebro ibaiaren erdiko tarte koordinatzeko Batzorde Teknikoaren barnean.

3.- Ba al du asmorik Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exijitzeko, alkateek eta nekazariak eskatzen duten moduan, Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaiak garbitu ditzan,

material gehiegi pilatu den gunetan, ala modu subsidiarioan egingen du garbiketa hori?

Aipatu diren jarduketak ur jabari publikoan gauzatzekoak dira. Urei buruzko Legearen arabera (1/2001 Legegintzako Errege-dekretua, uztailaren 20koa, Urei buruzko 29/85 Legearen testu bategina onetsi duena), ur jabari publikoa Estatuaren eskumena da, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren bidez gauzatzeko. Eskumen horren ondorioz, aurtengo uholdeetatik aurrera CHEk derrigorrezko ingurumen txostenak eskatu ditu azpiegiturak konpontzeko eta buxadurak eta oztopoak garbitzeko egindako 320 jarduketei buruz. Honela banatu dira txostenak: Ebro: 199, Aragoi: 11, Arga: 28, Ega: 51, Alhama: 9, Queiles: 5, Linares eta Odrón: 15, Longar: 2. Jarduketa horietatik guztietatik batzuk beste erakunde batzuek gauzatu dituzte. Hala ere, guztiei aldeko txostena eman zaie ingurumen ikuspuntutik, behar diren baldintzak ezarri ondoren, eta gaur egun gauzatzeko fasean daude.

4.- Ebro ibaiaren kasuan, uholde-eremuak ezartzearen aldekoa al da Gobernuak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak nahi duen bezala?

Nafarroako Gobernuak uholde-eremuak ezartzearen aldekoa da, 2007/60/EE Zuzentarauko hitzaurrean aipatutako printzipioarekin bat etorrira; horren arabera: "Ibaiei espazio handiagoa emateko asmoz, (uholde-arriskua kudeatzeko planek) alubioi-lautadak mantentzeko edo berrezartzeko aukera hartu behar dute kontuan, ahal den guztietan." CHEk aldarrikatzen dituen uholde-eremu kontrolatuei dagokienez, Gobernuak mota horretako jarduketak ezartzearen aldekoa da, baldin eta behar bezala zehaztuta badaude horien kokapena eta egokitasuna, eremu horietako uholdeak saihesteko ondorioen kuantifikazioa, obren finantzaketa eta mantentzea, konportak irekitzeko irizpideak eta erantzukizunak, eta uztekin nahiz nekazaritza azpiegiturek jasandako kalteengatik aseguruei eta kalte-ordainei buruzko politika.

5.- Aurreikusita al dauka bilerarik egitea administrazio eskudunekin eta udalen, ureztatzaile-elkarteen eta nekazarien ordezkariekin, egoerari aurre egiteko, elkarrekin nahiz bere kabuz?

Irailaren 2an eta 3an, Nafarroako Gobernuak Gobernu Batzarrean eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoko Uraren Kontseiluan eskatu zuen Ebro ibaiaren erdiko tarte koordinatzeko Batzorde Teknikoaren bilera egiteko, Ebro ibaiaren erdiko tartearen mailako uholdeen ukipenak minimizatzekeo Jarduketa Plana prestatzeko asmoz. Plan horren helburua etorkizuneko uholdeek eragiten dituzten kalteak murrizten laguntzen duten neu-

rriak hartzea izango litzateke. Plan horretan Udalek, lurralde-agenteeek eta interesdunek, oro har, parte hartu beharko dute, prestatu beharreko lan programan ezartzen den neurrian.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen egin gabeko faseen exekuzio-epeak betetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen egin gabeko faseen exekuzio-epeak betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 11ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higuera foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ubidean egiteke dauden faseen eraikitze-epeak betetzeari buruz (9-15/PES-00045). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Nafarroako Ubideko 1. faseko zabalpenaren eremu ureztagarriari dagokionez, eraikitze aurreikusi diren epeak interes orokorreko obrak emateko kontratuaren administrazio klausula partikularren orriko X. eranskinean ezarritakoak dira; kontratu hori Aguas de Navarra, SA enpresa emakidadunak eta INTIAK sinatu zuten 2014ko maiatzaren 21ean. Eranskin hori gehitu egin da.

2. faseko aurreikuspenei dagokienez, gaur egun indarrean daudenak Nafarroako Ubidea egiteko Nafarroaren eta Estatuaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2012ko

uztailaren 31n egindako 8. bilerari buruzko dokumentazioaren barneko E-7 agertokiari dagozkionak dira.

2. faseari buruz 1999an egindako aurreikuspenak eta gaur egungo egoera direla eta, honako inguruabar hauek aztertu behar dira:

– Finantzatze baldintza berriak.

– Canasa sozietatearen diru-sarrera gutxiago: Ura neurri txikiagoan behar duten laboreak (zerealak) ezartzeagatik. Ur-kontsumoa %40 murriztu da.

– Tebasko ur-araztegia maila txikian erabiltzen ari da, eta horrek diru-sarrerak nabarmen gutxitzea dakar.

– Lurzati-tako ekipamendua atzeratzea. 3.000 ha inguru daude hornitu gabe.

– Ponpaketen energia-kostuak gehitzea.

– Nafarroako Ubideko 2. faseko eremu ureztagarria Lodosako Ubidearekin eta Bardearen mendeko Ferial urtegiko eremu ureztagarriarekin gainjartzea.

– Arga eta Ega ibaietako eremu ureztagarrien interesa.

– Eremu ureztagarriko ur-kontsumo txikiagoak.

Amaitzeko, Nafarroako Ubidea egiteko MAGRAMAren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean –Arias Cañete ministroaren eta Barcina lehendakariaren artean, hurrenez hurren– Artaxoan 2013ko abuztuaren 28an sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena eguneratzeko hirugarren erabakiko 6.

eta 7. puntuek adierazi dute hitzarmena sinatu duten bi aldeek honako erabaki hauek hartu dituztela:

6.- Bai CANASAk bai bi Administrazioek Nafarroako Ubideko 2. faseko obrak egiteko behar diren izapideak eta ekimenak gauzatzea.

7.- 2. faseko obrak egiten hasi baino lehen ekonomia eta finantza kalkuluak eginen dira berriro, eta aldeek horiek onartzea onetsiko dute.”

Hori dela eta, egiteko dauden faseen eraikitzepeak zehazteko orduan, Gobernuaren asmoa

azterlanak eta ekonomia- eta finantza-azterketa egitea da, baita proiektu osoaren azterketa teknikoa ere, egutegia, jarduketak eta balizko aldaketak ezartzeari begira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria Isabel Elizalde Arretxea

**X. ERANSKINA - ERAIKUNTZA PROIEKTUAK IDAZTEKO ARAUBIDEAREN, OBREN EGIKARITZAPENAREN ETA HAIEN  
USTIAPIENAREN HASIERAREN DATA NAGUSIAK**

SEKTOREA/EREMUA	Kalkulatu beharreko azalera ureztagarria	INTIAK lurzati-berrantolamenduari buruzko erabakia SIARI eta sozietate emakidadunari emateko mugaegunak (sozietate emailearen betebeharra)	Sozietate emakidadunak SIARI INTIAren aldeko txostenarekin batera Eraikuntza Proiektua emateko mugaegunak (sozietate emakidadunaren betebeharra)	SIAK INTIAren aldeko txostenarekin batera Eraikuntza Proiektua onesteko mugaegunak (sozietate emailearen betebeharra)	SIAK INTIAren aldeko txostenarekin batera Eraikuntza Proiektua onesteko mugaegunak (sozietate emailearen betebeharra)	1. egiaztapen aktaren (EA) egunak eta ordainsarien sortzapen hasiera	1. Eako azalera	2. EAtren egunak eta ordainsarien sortzapen hasiera	2. Eako azalera
	(hektareak)	(ZEA)	ZEA + 3 hilabete	ZEA + 3,5 hilabete	ZEA + 4 hilabete	Ureztagetaren hasiera		Ureztagetaren hasiera	
ARGA 1-A	96 ha	14-uzt-15	14-urr-15	14-urr-30	14-aza-15	15-abi-15	96 ha	15-abi-15	
ARGA 1-B	127 ha	14-abe-15	15-mar-15	15-abi-01	15-abi-15	16-abi-15	127 ha	16-abi-15	
ARGA 2	1.056 ha	15-uzt-15	15-urr-15	15-urr-30	15-aza-15	17-abi-15	1.056 ha	17-abi-15	
ARGA 3	950 ha		[*]		14-aza-15	16-abi-15	950 ha	16-abi-15	
ARGA 4	1.363 ha	16-uzt-15	16-urr-15	16-urr-30	16-aza-15	18-abi-15	1.363 ha	18-abi-15	
ARGA 5	800 ha	15-uzt-15	15-urr-15	15-urr-30	15-aza-15	17-abi-15	800 ha	17-abi-15	
ARGA 6	802 ha		[*]		16-urr-15	17-abi-15	802 ha	17-abi-15	
XXIII sektorea	679 ha	14-abe-15	15-mar-15	15-abi-01	15-abi-15	16-abi-15	679 ha	16-abi-15	
XXIV.A sektorea	500 ha	14-uzt-15	14-urr-15	14-urr-30	14-aza-15	15-abi-15	500 ha	15-abi-15	
XXIV.B sektorea	1.538 ha	14-uzt-15	14-urr-15	14-urr-30	14-aza-15	-	-	16-abi-15	1.538 ha
XXV sektorea	298 ha	15-ots-28	15-mar-30	15-eka-15	30-eka-15	16-abi-15	298 ha	16-abi-15	
EGA 1	119 ha		[*]		15-aza-15	16-abi-15	119 ha	16-abi-15	
EGA 2	1.033 ha	15-uzt-15	15-urr-15	30-urr-15	15-aza-15	17-abi-15	1.033 ha	17-abi-15	
EGA 3	1.233 ha	15-abe-15	16-mar-15	16-mar-31	16-abi-15	17-abi-15	1.233 ha	17-abi-15	
EGA 4	1.247 ha	16-uzt-15	16-urr-15	16-urr-30	16-aza-15	18-abi-15	1.247 ha	18-abi-15	
EGA 5	731 ha		[*]		17-urr-15	18-abi-15	731 ha	18-abi-15	
EGA 6	438 ha	16-abe-15	17-mar-15	17-abi-01	17-abi-15	18-abi-15	438 ha	18-abi-15	
EGA 7A	231 ha		[*]		17-aza-15	18-abi-15	231 ha	18-abi-15	
EGA 7B	100 ha	16-abe-15	17-mar-15	17-abi-01	17-abi-15	18-abi-15	100 ha	18-abi-15	
EGA 8	689 ha		[*]		17-urr-15	18-abi-15	689 ha	18-abi-15	
EGA 9	1.245 ha		[*]		17-urr-15	18-abi-15	1.245 ha	18-abi-15	

## **Galdera, itxarote-zerrendei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, itxarote-zerrendei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 11ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko irailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako Begoña Ganuza Bernaola foru parlamentariak galdera egin du

itxarote-zerrendak murrizteko aurrekontua handitzeko asmorik edo itxarote-zerrendak kostu ekonomikorik gabe murrizteko planik egoteari buruz. Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

1. Egoerari buruzko diagnostiko zehatza egin ondoren, Itxarote-zerrenden gaineko Ekintza Plan Integrala garatuko dugu, hiru arlotan jardunen duena:

- Adierazpen eta lehenespen klinikoko irizpideak adostea, eskaria arrazionalizatzeko asmoz.

- Eskaintza optimizatzea eta outputa hobetzea, eraginkortasunik ezak eta itoguneak zehaztu eta zuzenduta.

- Eskaintza eta eskaria orekatzea ahalbidetzen duten autorregulazio mekanismoak garatzea.

2. Plan Integraletik ondorioztatutako aurrekontu beharrianak plana prestatu ondoren eman dira ezagutzera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta COSPLANen (Familia Orientabiderako Zentroa) arteko harremanari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garayalde y Lazkano Sala andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren eta COSPLANen (Familia Orientabiderako Zentroa) arteko harremanari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 11ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko irailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu parlamentu-taldeari atxikitako Asunción Fernández de Garayalde foru parlamentariak

galdera egin du Nafarroako Gobernuak Cosplan Familia Orientabideko Zentroarekin daukan lankidetzari buruz. Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Cosplan Familia Orientabideko Zentroa izeneko Elkarteak diru-laguntzak jaso ditu azken urteotan, "Afektibitate- eta sexu-heziketa eta sexualitatean eta ugalketan bizi-ohitura osasungarriak sustatzea" izeneko programa garatzeko.

Diru-laguntza horiek Osasun Departamentuak urtero deitzen dituen "Prebentzioa eta osasuna sustatzeko programetarako toki entitateei, erakundeek, fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek diru-laguntzak emateko" ondoz ondoko deialdien esparruan eman dira.

Hurrengo taulan hainbat urtetan emandako zenbatekoak agertzen dira:

Urtea	Emandako diru-laguntza
2015	499 €
2014	594 €
2013	640 €
2012	980 €

2015ean, aurreko urteetan bezala, honako jarduera hauek proposatu ditu zentroak: tailerrak (2-4

h) eta hitzaldi-solasaldiak (1,5 h) nerabe eta gazteentzat, gurasoentzat eta ugaltze-adinean dauden helduentzat. 1.500 bat lagunekin lan egitea aurreikusi du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritza-taldearen erabakiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako ikasleak fisikoki banandu baitituzte hizkuntza-ereduaren arabera.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritza-taldearen erabakiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako ikasleak fisikoki banandu baitituzte hizkuntza-ereduaren arabera. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 11ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentariaren elkarreko parlamentari Marisa de Simónek 2015eko irailaren 3ko idazkiaren bidez informazioa eskatu du Sarriguren ikastetxe publikoari buruz.

Hauxe erantzun dio Hezkuntzako kontseilariak:

1. Hirugarren eraikinaren 1. fasea eraikitzeko konpromisoa egonda eta haren ezaugarriak kontuan hartuta, ikastetxeko zuzendariak ikasleen etorkizuneko kokapena galdetu zien horretako kide anitzeko organoei: Koordinazio Pedagogikoko Batzordea, Klaustroa eta Eskola Kontseilua.

i. Gaia aztertu duten Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen bilerak: 2014-09-15, 2014-09-29, 2014-10-06, 2014-10-20, 2014-11-03, 2014-11-10, 2014-12-01, 2014-12-15, 2015-01-12, 2015-01-19,

2015-01-20, 2015-02-23, 2015-03-09, 2015-04-13, 2015-04-27, 2015-05-18, 2015-06-08 eta 2015-06-15.

ii. Gaia aztertu duten Klaustroaren bilerak: 2015-12-10, 2015-10-29, 2015-02-04, 2015-03-05, 2015-06-10 eta 2015-06-24.

iii. Gaia aztertu duten Eskola Kontseiluaren bilerak: 2014-10-29, 2015-02-04, 2015-03-24 eta 2015-06-24.

iv. Gaia aztertu duten guraso-elkartearikiko bilerak: hiru astean behin ikasturte osoan zehar.

2. Ikastetxeko espazio urriak direla eta, "Sarriguren" HLHIPko ikasleen banaketa gai konplexua da, eta ikastetxeko koordinazio eta ordezkaritza organo guztietan behin eta berriz aztertu da, 1. puntuan adierazi den bezala: Koordinazio Pedagogikoko Batzordea, Klaustroa eta Eskola Kontseilua. Halaber, ikastetxeko zuzendaritzak elkarriketak izan ditu Eskola Kontseiluko zein guraso-elkarteko ordezkarien iritziekin bat ez zetozen hainbat familiarekin.

Bilera horietan guztietan proposamen ezberdin eta kontraesankor guztiak entzun eta baloratu dira.

3. Gai horretan ikastetxea autonomia bada ere, horretako zuzendaria harremanetan egon da etengabe ikastetxeko ikuskatzailearekin, eta ikastetxera egindako azken bisitetan gaia landu dute.

4. Bai komunitateko ordezkariak organoei bai ikuskatzaileari kontsulta horiek egin eta gero, Eskola Kontseiluaren ekainaren 24ko bileran zenbait familiak gaiaren inguruan zeuzkaten iritzia entzun ziren.

5. Hirugarren eraikinaren 1. fasea eraikitzeko konpromisoa egonda eta haren ezaugarriak kontuan hartuta, aurretik aipatu diren organoek egokitzat jo zuten Haur Hezkuntzako A-G eredu ikasle guztiak eraikin berrian eskolatzeko.

6. Eraikin hori irailaren 7an eman zitzaion Eguesibarko Udalarari, eta, beraz, hori erabiltzen hasi zen.

7. Organoek adostu eta zuzendaritzak hartu dituen erabakiei jarraikiz, Haur Hezkuntzako A-G eredu ikasle talde guztiak eraikin horretan kokatu ziren. (2 solairuko) eraikin zaharrean Lehen Hezkuntza osoa (26) eta D eredu 5 urteko 2 talde eskolatu ziren; 2. eraikinean, berriz, Haur Hezkuntzako D eredu gainerako taldeak (13).

8. "Sarriguren" HLHIPko hirugarren eraikinaren obrak amaitu arte ezin izan zitzaizkien espazio zehatzik esleitu ikasle taldeei, ezta irakasle zehatzik ere ikasle taldeei.

9. Era berean, bai ikasle taldeen bai irakasleen ordutegiak espazio zehatz horien esleipena

baldintzatu zuten, ikastetxeko espazio urrietara egokitzeko asmoz.

10. Une honetan "Sarriguren" HLHIPko espazioen banaketa zehatza erantsi diren 3 planoetan adierazitakoa da.

11. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 132.b) puntuan adierazi du honako hauek zuzendariaren eskumenak direla:

"b) Ikastetxearen jardura guztiak zuzentzea eta koordinatzea, irakasleen Klaustroari eta Eskola Kontseiluari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe."

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa onesten duen otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretuak, 30.f) artikuluan adierazi du honako hauek direla zuzendariaren eskumenak:

"f) Zentroko baliabide materialak kudeatzea."

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, adingabeei eginiko sexu erasoak areagotu izanari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, adingabeei eginiko sexu erasoak areagotu izanari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 17ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutalderari atxikitako Iñaki Iriarte López foru parlamentariak informazioa eskatu du (9-15/PES-00049). "Fiskaltzaren 2014ko oroitidazkiaren arabera, Nafarroan bortxaketak 2013an 6 izatetik 2014an 22 izatera igaro dira. Adingabeen aurkako

sexu-erasoak ere areagotu dira. Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ba al du inolako neurririk hartzeko asmorik, era horretako erasoak murrizteko xedez?" Hauxe adierazi dio Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak:

Foru parlamentariaren galderaren oinarria Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltzaren 2014ko ekitaldiko oroitidazkitik ateratako bortxaketen ustezko delituagatik erregistratutako aldez aurreko eginbideen kopurua da; izan ere, 22 izan ziren.

Fiskaltzaren oroitidazkiak berak zigor prozeduren bilakaerari heldzean 21. orrialdean azaltzen duenez, aldez aurreko eginbideen kopurua kontu handiz aztertu beharreko jardura judizialaren datu adierazgarria da, salatzen diren eta Epaitegi

bati jakinarazten zaizkion egitate guztiek, arauhauste kriminala ekarri zein zen, alde aurreko eginbideen prozedura abiaraztea baitakarte.

Horren ondorioz, kriminalitatearen bilakaeraren zentzuzko ideia sortzeko, gomendagarria da alde aurreko eginbide horiek bestelako prozedura bihurtzeari buruzko datuak hausnartzea. Alde horretatik, alde aurreko eginbideen 22 prozedura horiek 3 sumario abiaraztea eragin dute, hau da, 2013ko ekitaldian baino sumario bat gehiago.

Hurrengo taulan sexu-askatasunaren aurkako delitu larrienengatik abiarazitako prozeduren bilakaera ikus daiteke, Fiskaltzaren azken bi ekitaldietako oroitidazkien arabera.

Delitua	2014	2013
Bortxaketa	3	2
Sexu-erasoa	8	10
Sexu-abusuak	15	24
13 urtetik beherako kontrako sexu-abusuak	7	5
Adingabeen kontrako sexu-erasoa	3	2
Guztira	36	43

Horrez gain, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuko auzitegiko psikologoek eta/edo medikuek sexu-erasoen eta -abusuen salaketenengatik gauzatu dituzten jarduerak aurreko urtekoak baino 77,3 gutxiago izan ziren 2014an. Datu horri dagokionez, kontuan hartu behar da auzitegiko medikuek ustezko biktima batek balizko sexu-eraso eta -abusu baten berri ematen duen guztietan esku hartzen dutela, salaketarik dagoen ala ez kontuan hartu gabe.

Laburbilduta, badirudi datuen azterketa lasaiak aditzera ematen duela ez dela egon sexu-askatasunaren kontrako delituen gehikuntza adierazgarriarik.

Dena den, horrek ez du esan nahi gure burua zoriondu behar dugunik. Izan ere, delitu bakar bat ere gehiegi da. Gobernu honek ez du atsedetik hartuko delituzko portaeren aurkako borrokan. Baina alferrik da efektuzko neurriak presaz hartzea, errealitatearen interpretazio txarrarekin bat datorren alarma soziala, berezkoa edo eragindakoa, arintzeko. Arazo horri prebentziotik heldu behar zaio funtsean, eta horrek hainbat eremutan (adibidez, familia, hezkuntza, eskubide sozialak eta justizia, jakina) ibilbide luzeko neurriak hartzea eskatzen du.

Hala eta guztiz ere, Foruzaingoak, Azterketa eta Txostenen Brigadaren bidez, Nafarroako Foru

Komunitate osoan gertatzen diren delituzko egin-tzen bilakaeraren jarraipen etengabea egiten du, eta horiei buruzko txostenak barnetik zabaltzen zaizkie atal zentraletako eta lurralde ataletako buru guztiei, Nafarroako kriminalitate-tasak murrizteko eraginkortasuna areagotzen duten prebentziosko neurriak hartzeko asmoz, delitu larriari jarraipen berezia eginda.

Testuinguru horretan, 2015eko uztailean delituzko jarduera areagotu egin zen Nafarroako herrietako jaiak zirela eta, adingabeen arteko eraso-eragoi dagokienez (bereziki lesio larriak eragiten dituzten borrokak). Horren ondoren, Ikerkuntza Kriminalako Arloko arduradunek problematika horren gaineko analisia egin dute. Horretarako, beste polizia kidego batzuetako arduradunekin harremanetan egon dira, bai sexu-eragoi dagokienez bai osotasun fisikoaren aurkako eraso-eragoi dagokienez prebentziosko neurri eraginkorak zehazteari begira.

Lehenengo ekimen gisa gazteei zuzendutako informazio jardunaldiak egiteko aukera hausnartu zen, bizikidetzaren oinarriko balio batzuen gaineko kontzientzia eta sentikortasuna berengana zitzaten. Horrela, Zangozako eta Kasedako Udalen laguntzaz Foruzaingoak bi esperientzia pilotu gauzatu ditu irailean: Polizia Judizialaren Dibisioko Laguntzako Brigadako langileek, adingabeengana-ko eta sexu-askatasunaren aurkako delituetako biktimak izan diren emakumeenganako tratuan espezialistak direnek, informazio jardunaldi batzuk aurkeztu dituzte "Erasorik ez" lemapean herri horietako biztanleak –eta, batez ere, gazteak– sentikor bihurtarazteko asmoz.

"Erasorik ez" jardunaldiaren edukiak honako alde hauek biltzen zituen:

1. Gazteen arteko eraso arruntenak zehaztea.

2. Sexu-erasoak: Zer dira? Zergatik gertatzen dira? Sexu-eraso motak. Eraso horiek antzemateko adierazleak. Nola saihestu? Zertan datza poliziaren jarduna? Eraso-eragoi lotutako bestelako kontuak.

3. Eraso fisikoak eta borrokak: Zer dira? Nola saihestu? Zer egin, horiek gertatuz gero? Eraso-tzaileen ondorio penalak. Zertan datza poliziaren jarduna?

Ikerkuntza Kriminalako Arlotik egin den eta delituzko egintza horietako biktimen kopurua eraginkortasunez murrizten lagundu dezakeen balorazio positiboa ikusita, honako estrategia hau proposatu da:

1) Nafarroako Foru Komunitate osoko ikastetxe guztiei "Erasorik ez" jardunaldia eskaintzea Barne



Ministerioko Segurtasunerako Estatu Idazkaritzak Bizikidetzeta eta Eskola Segurtasuna hobetzeko sustatutako Plan Zuzendariaren esparruan; Foruzaingoak bertan parte hartzen du, eskola esparruaren barnean hainbat prestakuntza eta prebentzio ekintza gauzatu.

2) Nafarroako Foru Komunitateko Udalei "Erasorik ez" jardunaldia eskaintzea 2016rako, Udal bakoitzeko arlo arduradunaren laguntzaz Foruzaingoak aurretik aipatutako edukia daukaten jardunaldiak gauzatu ditzan gazteendako.

Ekintza horiek Nafarroako Gobernuko Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak "Eta jaietan... zer? Jaietan berdintasunaren aldeko

Udalak" sentsibilizazio kanpainaren bidez 2015ean abiarazi zuen proiektuaren osagarri dira. Proiektu horren helburua sexu-jazarpena eta sexu-erasoak saihesteko funtsezko mezua jakinarazi eta hedatzea zen, errespetuzko portaerak eskatuta eta EZETZA jaietan ere errespetatu behar dela adierazita.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 6an

María José Beaumont Aristu

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria

## Galderak, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoak.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emanak, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoak. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 17ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higuera foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin du uholdeek eragindako kalteetarako laguntzei buruz (9-11-/PES-00050 - 00056). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak:

1. eta 2. galderei dagokienez:

1.- Zer udalek, ureztatze-sindikatu edo/eta ureztatzaile-elkartek eskatu dituzte gertatutako kalteengatiko laguntzak?

2.- Zer jarduketa-motatarako eta zer zenbatekorengatik eskatu dira laguntzak?

Egokitzat jo da galdera guztiei batera erantzutea, Ebro, Arga, Aragoi, Ega, Alhama, Odrón eta Linares ibaietarako kontuak aipatzen baitituzte. Askotan toki entitateek eta ureztatzaile-

elkarteez eskatzen dituzten laguntza-eskabideak eta zenbatekoak ezin zaizkio esleitu ibilgu zehatz bati, udalerrri batean kalteak hainbat ibilgutan eta ibilgu horietako toki oso urrunetan egon baitaitezke. Gainera, galderen testuak ibaiertzetako kalteak aipatzen omen ditu, nahiz eta ibilguen ondoan ez dauden bide, erreten eta abarretako kalteei buruzko espediente asko egon, batez ere Erdialdean eta Mendialdean. Eta ez dituzte aipatu kantauriar isurialdeko kalteak.

Taula batzuk gehitu dira; horietan Nafarroako Foru Komunitatean 2015eko urtarrilean, otsailean eta martxoko euriek, elurrek eta uholdeek eragindako kalteak konpontzeko jarduketa plana onetsi duen Nafarroako Gobernuaren 2015eko maiatzaren 20ko Erabakiaren bidez onetsitako jarduketan arabera toki entitateek eta ureztatzaile-elkarteez nekazaritza azpiegiturak konpontzeko aurkeztu dituzten laguntza eskabideak eta zenbatekoak agertzen dira. Hona hemen taulok:

– Toki entitateetarako euste-dikeei buruzko 2015eko emakida: Euste-dikeetan eragindako kalteak presaz eta gerora gabe konpontzei buruzko 273/2015 Foru Aginduaren bidez araututako laguntzen deialdian aurkeztu diren eskaerak.

– Ureztatzaile-elkarteetarako 2015eko emakida: Ureztaketako azpiegiturretan eragindako kalteak presaz eta gerora gabe konpontzei buruzko 271/2015 Foru Aginduaren bidez araututako laguntzen deialdian ureztatzaile-elkarteez aurkeztu dituzten eskaerak.

– 2015eko neguko uholdeek eragindako gainerrako kalteei buruzko laburpena: Toki entitateek aurkeztutako eskaerak, nekazaritza azpiegitura publikoak konpontzeko laguntzak onetsi zain daudenak. Nafarroako toki entitateen titulartasuna daukaten edo horiek gauzatu dituzten nekazaritza azpiegitura publikoak konpontzeko edo leheneratzeko kostuen %50era arteko diru-laguntza jasoko dute. Laguntzak ondorio horretarako egindako deialdi publikoaren bidez emanen dira. Laguntza horiek Estatuak martxoaren 6ko 2/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren 4. artikuluan ezarri dituen laguntzen osagarriak izanen dira. Horietarako zenbatekoa 2016ko aurrekontuko 2.678.353,04 eurokoa izanen da.

– Ureztatzaile-elkarteen kalteak, TRAGSaren proiektuaren araberrakoak: TRAGSari aginduta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ureztatzaile-elkarteen ureztaketako azpiegiturak konpontzeko gauzatu beharreko jarduketak, 2/2015 Legegintzako Errege-dekretuak babesten ez dituenak. Gaur egun agindu hori izapidetze administratiboan dago, eta bertan adierazi diren konponketak laster onetsi eta abiaraztea aurreikusita da.

3.- Nekazariak eta abeltzainak Gobernuari jakinarazitako kalteen kopurua, zenbatekoa eta herriak.

IBAIA	KOP.	ZENBATEKOAK	HERRIAK	KALTEAK
LINARES	0	0	0	0
EGA	3	15873 €	ANTZIN ETA CÁRCAR	Lur mugimenduak 3
ALHAMA	0	0	0	
EBRO	169	2.394.222 €	BATZUK VIANA, MENDABIA, LODOSA, AZAGRA, SARTAGUDA, SAN ADRIÁN, MILAGRO, CADREITA, CASTEJÓN, TUTERA, FUSTIÑANA, CABANILLAS, BUÑUEL, RIBAFORADA, FONTELLAS, CORTES,	Lur mugimenduak 166 Erretenak 6 Bideak 14 Hesiak 2 Etxolak 3 Negutegi-biltegia 1 Tutuak 4 Ponpak 3 Piboteak 2 Sare elektrikoa 4 Negutegiak 2 Dikeak 3
ODRÓN	10	88.871 €	NAZAR, SORLADA, MUETZ ETA MENDAIZA	Lur mugimenduak 10 Drainatzeak 3
ARAGOI	1	10.604 €	FUNES	Lur mugimenduak
GUZTIRA	183	2.509.570		

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 7an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

UREZTATZAILE-ELKARTEEN UREZTAKETAKO AZPIEGITUREN KONPONKETA		
UREZTATZAILE-ELKARTEA EDO UREZTATZAILEEN SINDIKATUA	HERRIA	FAKTURAK (BEZIK gabe)
Azagrako Ureztatzaileen Elkartea	Azagra	7.148,20 €
Argadielgo Ureztatzaileen Elkartea	Azagra	19.952,14 €
Cadreitako Ureztatzaileen Elkartea	Cadreita	22.863,60 €
Sartagudako Ureztatzaileen Elkartea	Sartaguda	10.280,14 €
Corellako Ureztatzaileen Sindikatua	Corella	51.185,37 €
Ubide Inperialeko Ureztatzaileen Sindikatua	Cortes	36.722,84 €
Fontellasko "El Soto" Ureztatzaileen Elkartea	Fontellas	2.024,00 €
Mendabiako Ebroko Ureztalurren Ureztatzaileen Elkartea	Mendabia	14.425,24 €
Imasko Ureztatzaileen Elkartea	Mendabia	7.434,20 €
Milagroko San Juan, Sardas, Cantera eta Rozas Ureztatzaileen Sindikatuak	Milagro	1.530,00 €
Milagroko Aragoi ibaiko Ezkerraldeko Eremuko Ureztatzaileen Sindikatua	Milagro	3.029,50 €
Ribaforadako Ortuko Ureztatzaileen Sindikatua (Ubide Inperialeko UE)	Ribaforada	45.440,50 €
San Adriango Ureztatzaileen Elkartea	San Adrián	2.807,71 €
Campo Mosquerako Ureztatzaileen Sindikatua	Tutera	8.395,59 €
Murillo de las Limasko Ureztatzaileen Elkartea	Tutera	40.495,40 €
Valtierrako Ureztatzaileen Elkartea	Valtierra	62.111,25 €
Recajo Ureztatzaileen Elkartea	Viana	74.653,34 €
Ubide Inperialeko Ureztatzaileen Sindikatua	Buñuel	73.631,54 €
Tausteko Ubideko Ureztatzaileen Sindikatua	Buñuel	18.551,63 €
Lodosako Ubideko Ureztatzaileen Sindikatua	Cortes	4.622,80 €
	<b>BATURA</b>	<b>502.682,19 €</b>

2015-9-22an eguneratua

## EUSTE-DIKEEN PREMIAZKO KONPONKETA

HERRIA	FAKTURAK (BEZAREKIN)
Andosilla	31.091,43
Buñuel	268.721,03
Cabanillas	22.276,11
Castejón	2.202,20
Cárcar	7.904,01
Faltzes	3.334,76
Fustiñana	62.742,29
Mendabia	82.503,60
Milagro	45.158,58
Ribaforada	13.538,69
San Adrián	113.796,62
Sartaguda	20.414,60
<b>BATURA</b>	<b>673.683,92</b>

UREZTATZAILEEN ELKARTEA	ZENBATEKOA EUROTAN
VIANA	15.732,48
RECAJO	14.192,72
MENDABIA	6.241,88
CÁRCAR	40.868,22
SAN ADRIÁN (MENDIA)	1.782,61
SAN ADRIÁN (TRADIZIONALA)	29.891,59
AZAGRA	61.565,79
ARGADIEL	21.740,82
MILAGRO (SAN JUAN)	26.773,90
MILAGRO (ARAGOI)	4.715,04
CADREITA	102.459,60
VALTIERRA	27.296,17
ARGUEDAS	131.023,56
MURILLO LAS LIMAS	121.715,49
TRASLAPUENTE	56.787,37
MEJANA	19.434,45
FONTELLAS	65.719,57
RIBAFORADA	247.298,96
CORTES	75.136,03
CORELLA	140.243,18
GUZTIRA	1.210.619,43

## TOKI ENTITATEEK ADIERAZI DITUZTEN ETA ADMINISTRAZIOAK BALORATU EZ DITUEN NEKAZARITZA AZPIEGITURA PUBLIKOETAKO KALTEAK

TOKI ENTITATEA	EUSTE-DIKEAK	BIDEAK	UBIDEAK	UHARKAK	HIRIKOAK	BESTELAKOAK	GUZTIRA AZPIEGITURAK	KALTEEN DESKRIBAPENA
Antzin	726,00 €					4.800,00 €	5.526,00 €	Kalteak bideetan
Arañil		20.000,00 €				60.000,00 €	80.000,00 €	Kalteak bideetan, zubietan eta uharkan
Araño		10.815,00 €			35.000,00 €		45.815,00 €	Baserrietarako 2 bideen lur-jausia eta erortzea
Arantza		42.552,90 €			15.000,00 €		57.552,90 €	Komponentak baserrietarako bideetan
Arruazu							- €	Kalteak zubiko egituran
Atez		7.260,00 €					7.260,00 €	Kalteak Erizeko eta Eguarasko bideetan
Azuelo		30.000,00 €				3.732,00 €	33.732,00 €	Kalteak udal sarriko egituran eta San Simeongo bidean
Baztan		60.000,00 €					60.000,00 €	Urritzeta bidea, Frantziarako bidea
Beintza-Labaien					87.296,50 €		87.296,50 €	Lur-jausia baserrietarako bidean
Bera					30.000,00 €		30.000,00 €	Lur-jausia baserrirako bidean eta hilerriko aparkalekuan Hainbat jarduketa
Lizarra								San Pedro Elizaren igogailuko ezponda, ezponden irristatzea, zuhaitzen erortzea, harri-hormen erortzea, euri-uren biltzaile buxatuak, zerbizua-errapeketako kalteak eta garajeetako eta sotoetako iragazteak
Esteribar		25.000,00 €			500.000,00 €		525.000,00 €	Bidea, 2015-05-06an bidaltako eskaera.
Ezkurra		77.650,84 €					77.650,84 €	Erortzeak Maloako eta Zurgineneako bideetan
Funes	14.700,00 €	41.196,15 €	4.600,00 €				43.300,00 €	Puste-dikeak, bideak eta ubideak
Galar								Mazelaren luizi handia
Goizueta					20.000,00 €		20.000,00 €	Komponenta baserrietarako bidean (errearen garbiketa eta PA)
Iguzkitza	20.509,50 €	20.000,00 €					40.509,50 €	Etxe bitzara sartzeko bidea Labeagan Kalteak Azketako bideetan
Txulapain		120.000,00 €					120.000,00 €	Mazelaren irristatzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako bideak ukitzen dituenak
Lantz					20.000,00 €	25.952,78 €	45.952,78 €	Kalteak ur hornidurako tutuan Kalteak hormigoizko zoladuran
Larraña		27.942,59 €					27.942,59 €	Kalteak nekazaritzako eta abeltzaintzako bideetan
Elizagorria	9.600,00 €	216.000,00 €					225.600,00 €	Kalteak Linarens eta Odrón ibaietako ibilguko harri-hubietan
Legaria		6.292,00 €					6.292,00 €	Kalteak bideetan
Leitza					60.000,00 €		60.000,00 €	Erasoete auzoko bidea (eskola autobusaren barriadia), Plazaola bidea.

Lerga		6.000,00 €								6.000,00 €	12.000,00 €	Ezpondaren lur-jausia, etxebizitzari eragin diona Kalteak bideetan
Lesaka	214.406,00 €	81.877,00 €		100.000,00 €		100.000,00 €					496.283,00 €	Lur-jausia Lopenekoborda baserrirako bidean (2015eko otsaileko euriak)
Longida		75.000,00 €									75.000,00 €	Kalteak bideetan eta Zuaсти zubian
Los Arcos	- €	20.000,00 €									20.000,00 €	Kalteak nekazaritzako eta abeltzaintzako bideetan
Mendoza	- €	20.000,00 €									20.000,00 €	Kalteak nekazaritzako eta abeltzaintzako bideetan
Mendigorría		24.498,50 €									24.498,50 €	Kalteak "El Arquillo" bidean
Mendiibarri		3.872,00 €									3.872,00 €	Kalteak euste-dikeetan
Mirafuentes	- €	3.000,00 €									3.000,00 €	Kalteak nekazaritzako eta abeltzaintzako bideetan
Mues		10.000,00 €		10.000,00 €						9.100,00 €	29.100,00 €	Kalteak nekazaritzako bideetan Kalteak uharketan Kalteak zubietan
Murieta		4.961,00 €									4.961,00 €	Kalteak euste-dikeetan
Nazar	- €	3.000,00 €								- €	3.000,00 €	Kalteak nekazaritzako eta abeltzaintzako bideetan
Oisagabia		30.000,00 €								30.000,00 €	60.000,00 €	Mazelaren luizia, bideari eta Zatoia ibaiko ibilguari eragiten diena
Oko		1.815,00 €									1.815,00 €	Kalteak euste-dikeetan
Olazti		7.920,00 €				1.782,00 €					9.706,00 €	Kalteak nekazaritzako eta abeltzaintzako bideetan
Orbaitzeta		29.486,43 €									29.486,43 €	Kalteak nekazaritzako eta abeltzaintzako bideetan
Gares												Ureztaketa tutua Arga ibaiko ibilguan
Zare												Ezpondaren lur-jausia, etxebizitzari eragin diona
Tirapu		30.000,00 €								50.000,00 €	100.000,00 €	Kalteak bideetan eta erretenetan
Torralba del Ro		30.000,00 €									30.000,00 €	Sakanen garbiketa
Uxue		60.000,00 €									30.000,00 €	Irristateak mendiko bidean
Deierri		10.000,00 €								15.000,00 €	54.000,00 €	Luizia Oñihanoitik Nazarrerako bidean
Zabaltza	12.000,00 €										12.000,00 €	Hilerriko bidea eta landa-bideak
<b>BATURA</b>		<b>271.941,50 €</b>	<b>1.230.139,41 €</b>	<b>4.600,00 €</b>	<b>110.000,00 €</b>	<b>898.078,50 €</b>	<b>204.584,78 €</b>	<b>6.000,00 €</b>	<b>2.718.152,04 €</b>	<b>204.584,78 €</b>	<b>2.718.152,04 €</b>	

## **Galdera, unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 25eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak (9/15/PES-00057) galdera egin du Nafarroako hainbat mailatan eta hainbat ikastetxetan matrikulatuta dauden ikasleen kopuruari buruz. Hauxe jakinarazi nahi diot:

Honekin batera, 2015-2016 ikasturteko Eskolatzeko Liburua bidali dizugu. Bertan galderan eskatu diren eta Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik Batxilergora bitarteko ikasketei eta unibertsitate aurreko beste ikasketa batzuei buruzkoak diren datuak agertzen dira eguneratuta.

Halaber, udal titulartasuneko ikastetxeetako zein ikastetxe pribatuetako eta Gizarte Gaien mendeko ikastetxeetako 0-3 urteko zikloko matrikula-datuak agertzen dituzten lau fitxategi bidali dizkizugu.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea.**

2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberako lehendakariaren agintaldia laster amaituko baita, Erregelamenduko 209. eta 210. artikuluetan eta Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatuarekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria izendatzeko prozedura hastea.

**2.** Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 25.3 artikuluan lehendakaria hautatzea dela-eta ezarritako hauteskunde-prozesuko bozketaren batean berdinketa suertatzen bada, bozketa errepikatuko da, eta oraindik ere berdinketa badago, bozketa eten egingen da lehendakariak erabakitzen duen epeaz. Epe hori iraganda, hiru-

garren bozketa egingen da eta, azken bozketa honetan berriro ere berdinketa suertatzen bada, zozketaz erabakiko da.

**3.** Ezartzea **2016ko martxoaren 4ko 12:00etan** bukatuko dela parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek Kontuen Ganberako lehendakari izateko hautagaiak aurkezteko epea. Hautagaiak Erregelamenduko 210. artikuluan xedatuari jarraikiz aurkeztuko dira.

**4.** Gogoraztea proposatutako hautagaiak 19/1984 Foru Legeko 25. artikuluko 2. eta 5. idatzatietan ezarritako baldintzak betetzen dituztela frogatu beharko dutela.

**5.** Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide bat hautatzea.**

### **HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kidea izateko hautagaiak aurkezteko epea **2016ko otsailaren 12ko 12:00ak arte** luzatzea.

**2.** Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarteen eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikorako bere ordezkari gisa izendatzekoak diren bi kideak hautatzea.**

### *HAUTAGAIAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak idazki bat aurkeztu dute, eta eskatzen dute Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoan Nafarroako Parlamentuaren ordezkari izateko hautagaiak aurkezteko epea luza dadin. Idazki hori ikusita, hona ERABAKIA:

**1.** Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoan Nafarroako Parlamentuaren ordezkari izateko hautagaiak aurkezteko epea **2016ko otsailaren 12ko 12:00ak arte** luzatzea.

**2.** Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarten eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza